

ZIKLOIAK, LEHORTEAK, GOSEA...

Klima aldaketak haurren duen eraginaz ohartarazi du Save the Children-ek

Klima aldaketaren muturreko ondorioak pairatzeko arriskuan dauden 45 herrialde horietan bizi diren hurrek elikagai gutxiago izango dituzte eskura, eta haien osasun egoeran ere eragina izango dute muturreko gertaera meteorologikoei, gaitasun berriak edo gehiago sortuz. Ur edangarriaren eskasia ere nabaritu dezakete eta itsasoaren maila igotzearen mehatxupean bizi dira.

BAPTISTAREN ISTORIA

Baptista (14 urte) Mozambiken bizi da. 2019ko apirilaren 25ean «Kenneth» zikloiak haren etxea eta herria txikitu zituen Cabo Delgado probintzian, iparraldean. Oraindik ere zikloiaren ondorioei aurre egiten ari dira bera eta hiru anaiak, Felicio 9 urtekoa, Admira, 6 urtekoa, eta Ergilia, 4

INGURUMENA / Ainara Lertxundi

Save the Children-en arabera, 710 milioi haur bizi dira klima aldaketaren ondorio larrienak pairatzeko arrisku gehien duten 45 herrialdeetan. Muturreko fenomeno meteorologikoei, hala nola uholdeek, lehorteek edo urakanek, haur zaurgarriengan eta haien familiengan ondorio bereziki larriak izan ditzakete.



Behean, Amina, 27 urtekoa, Somalian, ura bildu nahian. Ezkerrean, bere bi alabak, Sahra, zortzi urtekoa –aurrez aurre dagoena– zazpi urteko Adia ahizparekin jolasean. Save the Children

urtekoa. Guztien izenak aldatu ditu Save the Childrenek haien nortasuna babestearren.

«Ezin dut ahaztu nola erori ziren inguruko etxeak eurite- engatik eta haizearengatik. Izututa nengoen. Nire eskola-ko teilatua ere erori egin zen. Geroztik etxerik gabe eta jate- korik gabe gelditu ginen», azaldu du Baptistak gobernu- kanpoko erakundeari eginiko adierazpenetan. Ondasun guz- tiak galdu zituzten.

Filomena amak azaldu due- nez, jaio zenetik, duela 37 urte, herrian bizi izan da. «Lehen al- dia zen hain fenomeno meteo- rologiko suntsigarria ikusten nuena. Zikloiak indar handiz astindu zuen herria, gerra ba- tean etsaiari erasotzen zaion indar berarekin. Irakasgai han- dia izan da guretzat. Geroztik, eguraldi aldaketarik badago se- gurtasun handiagoa duten le- kuetan babesten gara».

Zikloia iritsi zenean, Filome- na etxean zegoen lau seme- alabekin. Etxeak zutik iraungo zuela pentsatu zuen eta babes- tuta egongo zirela. Baina, ekai- tzak aurrera egin ahala, beste babesleku bat bilatu beharko zuela ohartu zen. Egurrez eta lokatzez egindako paretak apurtzen hasi ziren. Familiak etxea uztea erabaki zuen. Mi- nutu batzuk geroago, etxeak behe jo zuen. Filomenaren- tzat oso une zail eta mingarria izan zen, beraien ondasun guztiak barruan zeudelako eta galdu egin zituztelako.

Atertu zuenean eta haizea baretu zenean, beraien etxea izandakoa ikustera joan ziren, zerbait berreskuratu ahal izan- go zuten esperantzarekin. Etsi- garria izan zen, ez baitzegoen deus ere berriro erabil zitekee- nik. Ekaitzak artoaren eta sor- goaren uzta ere hondatu zien, baita hurrengo uztarako balia-

